

# OLERTI'RI

Oleri...! Entzun Oleri nere edermin ezkuta; ondoren nazu ba, amesti, zuretzaz liluratu. Eder-zala det gogoia, ta Ederra zuzan dago, zatir da ludi eroa; zuretik zerbait emango?

Ondoren nazu goizetik, ondoren eguerdian, gazte-gazte nintzanetik, eta zartu naizenean, naiz bakarrik nagonean, baita lagunak ba-ditut, alai, naiz lilun-aldian beti nerekin nai zaitut.

Zer ote zeran oldozten egunak joaten zaizkit, baña nun zauden igertzen ori bai, ori badakit. Zure berri ematen dit IZADI'k bete-betean; aitezkoaz bidal dizkit zoragarri, gaur goizean,

Arkitzen zaitut berrixtu errekaxo apalean, mendri barrenari muxu emanaz, jeixten danean. Zaude, baita Sarkaldean,

itxas-mugan exerita, euzkiak ezkatutzean ditun margoaz jantzia.

Abesten dezu, basoan bizl diran txoriekin, ta lo, amaren altzoan lo dagoan umeakin. Beti dituzu zurekin neskutzen gogo aratzak; beti dira Jainkoakin, maite zaituzten biotzak.

Maite-mindunak negarrez zure'ana biltzen dira, beren miña zure ederreaz arindu ta gozatzera. Zoriondunak oztera pozago ta ederrago, beren poza azaltzera nola etzaizuz joango?

Ona, ni, zure ondoren Oleri, kutun nerea, etozkit maitez mintzaten edertasunez bete. Nere Jaun eta Jabea Beregana deitzen daukat: zuk badakizuz bidea, aren...! atozkit laguntzat.

TENE

## NERE BORDATXOTIK



Euskera «gizadiaren gordallua» zala esan zuen Oñati'n, 1918'garren urtean, garai artako Españi-ko errege, Alfonso XIII'garrenak.

Bai, enetxoak: «Gizadiaren Gordallua» (Tesoro de la Humanidad).

Guraso zarretatik artu genduen seme-aleberri esku— aldatzen alegin zuziak egin bear genituela esuskeldunok.

Bai nor bagaña; bai egiltzako kontzientzia bagendua.

Ez degu ordea, ta argatik gabiltzan bezela.

A zer egia esaten dituzun, adiskide!

Erretzasunik ez degun bitartean, «au ta ori» esanaz ez gara ixiltzen.


Ainbat izerdiren ondoren errez testin danak inguratutakoan, ke-sorik ez; erantzunik ez.

Mingaña batera ta biotza bestera. Egintzerik ez, obrarik ez. Eta obra gabeko itz utsak xentimo erdirik ez balio.

Orain dezute garala Goierri'ko gazteok zer zeraten erakusteko. Aukera ederra etorri zaizute eskuetara eskola ona, ta, bide batez, euskera ondo ikasteko.

Aukera orretzaz ballotzen ez-pazerate, zuen berrietea danak aizeak eramango ditu. Ez dezute sortzeririk maite: ez dezute izkuntzarik maite.

Gogoratu Ebanjelio'ko zatia: «Nerekin ez dagoena nere kontra dago».



Sarriegi jaunak, Bessain'dik, oso ondo idatzitako karta bat bialdi dit. Onela dio:

«Goierrri'ko Profesional Ikastetxean (Escuela Profesional del Goyerrri), lenengo aldiz, euskera erakustea lortu da.

Nai duten guziak izena eman dezakete. Orainarte igaro diran egunetan, oso gutxiak eman dituzte izenak—dlo— nik jakin dedanez.

Tamalgarrria, lastimagarria da benetan.

Ikastetxe ortan dabiltzanek, lautatik lru baño gelago, euskaldunak dira.

Euskeraz itzegiten dakitenak, baña idatzeko irakurtzeko ta jakintza bideak urratzeko, euskerekin ballotzen ez diranak.

Beren izkuntzan «analfabeto», itz batean esanda.

Au onela izanarren, gaztedi orrek ez dauka ikasteko ardura berazirik.

Bestalde berriz, ikasketak «estudioak» bukatuarren, lan ga-beak pranko dira.

Itxort ez daki euskera ondo jakiteak ontan zenbat lagundu dezakean ogibidea billatzeko.

Jauneri eaker, egunetik egunera gelegotzen ari dira gure izkuntza nai ta nai ez jakin bearreko ogibideak.

Itxura denez, gazteak ez dute au ikusten, eta onen antzeko ateraldiak entzuten dira:

«Euskera len ere naikoa bezekiegiu. Beste gaiak ikasteak ere lanik asko emango zigutek.

Aurten eman dan pauso au izerdit askoren ondorena da. Erantzun bat bear du.

Aurten jende askoren erantzuna izan ezkeru, ondorengo urtean bearreko bezela joko litzake.

Aurten jende gutxiak erantzun ezkeru, urrengo urtean ez litzake aintzat artuko.

Zenbaitentzat dana politika izan oi da, ta, beste gabe, etzera egiten du.

Beste batzuek berriz, ajolaga-bekeriak eraginda, ez diote gauzari daukan garrantzirik ematen.

«Margo-Ederdun Enziklopedia» aurrera dijos bere zeregiñetan.

Irugarren liburua, Irugarren ale bikaña, azaldua da plazara; jartia da saltzen.

Oraindik oraintsu, bigarrenaren berri ematen nuzuten: «Afrika» izeneko liburua kalean zala adierazten nuzuten.

«Landareen Mundua» du izena Irugarren onak. Izenak dion bezela, landare gal guziak argi ta aparteko edertasunez agertzen dizkigu.

Ba-degu zer ikasi!

Gai egokia benetan gure artereko. Landare mota asko dira gure lurraan. Beren eskuak izenak ez ditugu ezagutzen.

Izenak ezagutzetik kanpo, bearreko diran xeetasun arrigarriak irakurri genitzake: ezkutu ki asko ikasi ere bai.

Nai duenak ba-du jakin— egarria nun asea.



Idekitzen dezun lekutik idekitzen dezula liburua au, beti arkituko dezu irakurgai xamurren bat aspertuko etzaituena. Aspertu ez, baña aurrera jarraitzeko gogoia piztuko dizu.

Au da beti liburu on batek egin bear duena.

«Biblia guztioi esana» zan lenengo liburua; «Afrika», bigarrena; «Landareen Mundua», Irugarrena.

Lenengo biekin txunditurik gelditu bagiañan, berdin gertatu zaigu Irugarren onekin.

Arrigarria da benetan landare-azl baten bizia.

Iputirik goxoan eta atsegiñan irakurtzen ari bazia bezelaxe, gozamen osoan zaudela, konturatu gabe, ta uste gabetan, jakiti bearreko enetzaz jabetuta gelditzen zera.

Ikasi egin dezu, ta asko ikasi ere. Liburua bukatzen dezenean beste izaki bat zera; len baño ondotoz gelago dakizuna.

Gure izkuntzan ez ditugu erretzasunik auzek izan gaur arte. Auzo izkuntzean nai bezelako

aukera, batek zer gai nai duen, artatik.

Euskeraz barau bizian geunden ordea.

Gaurtik aurrera, Jaunari esker, ez daukagu onelakorik esaterik.

Argituzko gaituzten liburuak, kulturaz jantzi gaituzten liburuak, ba-ditugu geure izkuntzan. «Margo-Ederdun Enziklopedia» egundoko serbitzua eskaintzen dio gure erriari.

Beti gauza berak esaten ari-tzea aspergarri dala ba-dakit.

Baña, esan bearrak daude gure erriaren gaurko izakera ikusita.

Irakurgai xamur eta atsegiñak jendearen eskuetan jartzea bearekorik ez da euskera sendotzeko ta indartzeko.

Inguratu egin bear degu jendea gure berritara, ta ez uxatu.

Trekets idatzitako lan zail, gaito, korapilotsuak, jendea asperterazi, nekazarri, nazkarazi egiten dute.

Orri esaten diot nik jendea uxatzea.

Pekatu asko egin degu ontan, ta ala ozagutzen iakin beareguduke. Asmo berri, sendok artu bear genituzke.

Erabat aldetu bear deguke jokabidez. Len uxatzen aritu izan garen bezela, orain erakartzen agerindu. Geure utsegiteak atortu, ta geiago ez arretatzek asmo sendok artu.

«Margo-Ederdun Enziklopedia» gure ikasletetan zenbat on egingo dute ez dago neurterik eta kalkulatzetik.

Texto liburu batzuek espadira ere, bai beintzat erakutsi bearreko guziak erakusten dituzten liburuak.

Jose Luis Onsorena jaunak oso trebeki egin du euskeratze lana.

Apaingarrien aldetik berriz ez du aitezirik txikiarik.

Betoz ugari ta oparo era ontako janariak. Liburuaren atarlan zail goxo auzi irakurtzen dira:

«Denok daramekigu gure lurraldearen irudia.

Begiak itxita ers, usai utsetik, beste gabe, Kortzega ezagutuko zuela, esaten zuen Napoleon'ek.

Aitezak kulunkaratzetan dituen gure lurraldetako garalak, baso orlegiak, mendi- egietako izal-erro urdiñak, ameztoiak, zumar txurdiak, erri inguruetako astigar zarreak: zuek zerate gure lurraldearen arpegi arrigarri ta al-dakorra.

Ere- hurrubua eguzki berotan entzuten degun zelai eta soros: belar siduaren eta loretegin usai gozoa usnatzen degun be-razta epela: dana landareia da. Guk, bizi izateko ain bearreko ditugun landareak...

Asiera au duenak ezin azken txarrik izan.

Euskaldun zintzo: «Margo-Ederdun Enziklopedia» ezagutu ta zereganatu gabe etzaitte gel-ditu.

Ez pentsa damutuko zaizunik!

*Baxari*

**Ez Merkenak**

**Bai Onenak!**

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gafiara esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

**FANDERIA**

**ERRENTERI**

**piensos**

**Biona**

BI ALDIZ ONA

**BIOTER'EK babestua**

**VELCIA, S. A.**

Pentsugille:

TUDELA'n: Apartado 51. Urrut. 820.812 ta 820.816

NANCLARES (Araba): Carretera General Vitoria-Miranda Km. 12 - Urrut. 6

**GUKELESA**

Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko esne onenakin gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizetua
- Esne soilla (esterilizatua)
- Esne autsa
- Esne-gaifia
- Guriña
- Yogur
- Batidua

Igara auzoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (Iau ari) — DONOSTIA